LOTAZILLA
10
Astartea

Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA

Bilbao'kua	9,00	ifko.
Bilbao'atazkua ...	11,25	"
Idazki-itunmena ...	62,00	" urte
Atzerijetakuak ...	112,50	"

Beldaven itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banaolea: Correo, 17,1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.163 zenbakia

Tafalla'ko abertzaliak

A TAFALLA'N EZDALA ABERTZALERIK?—ANTZESKIZUN ABERKOYAK.—SABIN'EN GOGO - ALDEZKO MEZA.—JABIER'TAR PANTZESKA DEUNAREN OPAZJAYA.—ABERI - OGASUN ALDEZKO EMAITZA.—AGERE NAPAR-BURU-BATZAR'EKO LENDAKARIAREN ITZALDI TXALOGARIA.—ABERTZALE SUA.—¡GORA TAFALLA'KO ABERTZALEAK! ¡GORA EUZKADI!

"Gora Euzkadi, gora beti,
gora Arana-Goiri'tar Sabin.
Jaun-Goikoa, Lege-Zara,
Gora Euzkadi azkatuta."

Euzko-abertzale guzion gogoko abesti aberkoi au entzun edo aditu naiduana, urbildu bedi Tafalla'ko "Euzko-Etxea"-rat. ¡Zeinen eder izanen zaigun antzeski-jaya den bakotxian Batzoki onetan bildutzen den txiki eta aundi, gizon eta emakume abertzale okitu ayengandik eta Oses'tar Miren anderaño jeltzale porokatua "pianoz" lagundurik ain gogotsu beriz eta beriz abestu izanen duten azkatasun-txinpartadun abesti zoragaria!

—¿Baina Tafalla'n? ¿Tafalla'ko Batzokia'n? ¿Tafalla'ko abertzaliak bukatu zirela eran etzuten ba? Galdera abek eginen izan ditu, irakurliak, aureko lero oyek irakurtzian; baina guk oartu duguna, besterik da: alegia orai ogei urtez abertzale ziren arpegiak orainik ere Batzoki eder onetan ikusi izanen ditugula, ta ez ayenak ekarik, baita beste aunitz euzkotar zintzoenak ere.

Batzoki onetan aldiz-aldizka ematen dituzten antzoki-jayak erdarazkuak izanen diralait begiko izanen zaizkigu, aberkoyak izanen diralakoz Tafalla'ko antzeslari trebeak ain egoki eta gogotsu antzestu oi dituzten antzerki gain-gainekoak.

Negu-aldi untan oraikoz lau antzeski-jai eder emanik dituzte: "Maite" lenik, beriz ere "Maite" bakar-izketa batekin; geroztik "Kotilde", eta azkenik "Nerea". Antzerki guziz aberkoi abek ikuskatu ditugun bakoitzian negar gozoro eragin izanen digute. ¡Gure gauzak biotza aixa bigundu izan bai-digute!

Ezdira ba nolanaikoak, Tafalla'ko antzeslariak, olako lanetan. Ortan ongi oituak eta eziak dituzu. Bestelaz, nola ain gogoz jendeak txalotu?

Denetan aipagarienak (denak ongi dagitelarik beren papera) Balentzia, Torralba, Ufoz eta Samaniego, prakadunetan; eta Rodriguez aizpak eta Aritzu anderañoak, gonadunetan. Antzeslari moltxo onekin jun gindezke edonorat gure izakera aintzindara zeinen garbia eta edera den beste endaetakoai erakustera. Nere aitapenik goragarienak doazila okentzat; nere txalorik beroenak ere bai... baina sutsuenak euzko-kantadun eresirik goxoenak ain trebeki "piano" eskindu izan dizkigun Oses'tar Mirentxu anderaño abertzale gogotsuarentzat.

"Agur jaunak,
jaunak, agur,
agur t'erdi.
Danok Yankoak
eginak dire,
zuek eta
gu ere bai..."

Ona emen igandean Arana eta Giiri'tar Sabin zenaren gogo-aldezko meza entzutera Pasionista'etako Elizara sartu ginanian "organuaz" Larañaga Aba azkoitiarak zuzendu zigun anaitasunezko agur samura. Geroztik meza-bitarte guzian, une-batean ere mututu gabe aritu zitzaigun Aba agurgaria gure gogoko abestiak diren doñuak ereskitutzen. "Konsagarzio"-rakoan ereskitu zuana, ordea, guretzat atseginen:

"Gora ta gora Euzkadi:
Aintza ta aintza
Bere Goiko
Jaun onari..."

Ufengo beriz beste au:

"Goiko mendian
edura dago,
erekaldian izotza.
Ene Aberi, guziz edera,
zu lakorik nundago-ba."

Eta azkenik beriz ere:

"Denak Yankoak
eginak dire
zuek eta
gu ere bai.
Agur jaunak,
jaunak, agur,
agur terdi."

Meza-emale Zenarutzabeitia'tar Benin bizkaitar Aba euzkeltzalia izan genun. Onela bukatu zan gure maisu omengariaren gogo aldezko meza oroigari ura. Bera entzuten urbildu ginan aunitz abertzale; gizon bai emakume. Antxe ikusi ziren Tafalla'ko abertzalerik aintzinakoenak: Bides anayak, Zelaya, Oses, Narzabal zinegotzi abertzalea, Doxandabarat ospetsua eta abar; guziok jaun abertzale prestuak. Emakumeak ere an ziren beste aunitz-artean: Zubiri anderaña, Emakume-Abertzale-Batza'ko lendakaria, Rodriguez aizak, Oses'tar Miren ereslari aipatua eta nik ezin dut asma zenbat geigo. Pasionista'en Elizatxoa guziz beterik ikusi genun. Ederki olaxen, Tafalla'ko abertzaleak. Eta Geyan bedi, Sabin, gure betiko maisua.

卐 卐 卐

Asteartian Jabier'tar Pantzeska deunaren eguna genularik, abertzaleok izan genun napartar aberkide done gurgari onen opazko eliz-jai edera Eskolapio'etan.

Ain goragarí abestu zan meza-nagusia, "Cum Jubilo" deritxona izan zen. Mintzaldi edo sermoia Lekaretxeko Aba nagusiak egin zuen. Jaungoika ta aberkoia, geyago ezin-añakoa izen zen Aba gurgari onen mintzaldia. Olako sermoi goxoak, zori-txarez, ezditugu gure elizetan "dozenan amairu" izanen. Elizan izen ezpagiña... txaloka eskuak aski berotuko giñuzen!

"Ofertorioan" Larañaga Aba pasionistak bere abots ederaren ezaugaria eman zigun gogor eta bikain abestuaz M. Arnandar eres-egile ospetsuaren "Tota pulchra" deritxon abesti entzungaria.

Eta meza-erdian... "Agur, jaunak" eresia, beriz ere..., oraindik igandean "Pasionistetan" entzun genunaren otsa buruan gendukalarik.

Gure mezak begikoak ez-ezeik, biotzkoiak izaten ezpadire gero!

卐 卐 卐

Afatsaldean ere atseginaldiederik izan genun "Euzko-Etxea,,'n. Leenik "Aberi Ogasun" aldezko emaitza egon zen. Baita diru moltzo polita bildu ere. Gero... atsegiña bai gerokoa! Napar-Buru-Batzar'eko lendakari prestu ta euzkaltzale jakintsu ta sutsua den Agere yaunak zuzendu zigun beraldiko mintzaldi goxo ta samura. Tafalla'ko abertzaliak Napar-Buru'ko nagusiekin izen zuten asare edo elkar-aditu-eziñatzaz eraso zion, baita uste zen bezala pakea egin delarik, igarotako auzi-mingari guziak aztu ditezela betiko eta aurerantz "Jaun-Goikoa eta Lege-Zara" gure ikurritz bakararen aldez baizik ezdugula betarik alperik galdu bear ongi baino obeki adierazi ere. Bere mintzaldia, alako mintzaldi goxo ta samura, ezdugu eraz aiztuko. ¡Gora Agere! Eta txalo sutsu ayek... Gora zu, beriz ere!

¡Gora Tafalla'ko Abertzaleak! ¡Gora Euzkadi!

JELTZALE.

ERENDERI'TIK

Gure eri maite ontan Gabon-jayetan euskeraz abesten duten taldeak ez gatdu baizik ugaritu ditezen, batzaldi edo konkurso bat eratzea erabaki du Euzkaltzaleak bazkunak.

Ona egitaraua.

Sariyak bi erakoak izango dira: "Jayotza" taldeentzat eta "Olentzaro" talde-entzat.

"Jayotza" taldeak gutxienez 5 umetxo-abeslarikin osatuak izango dira. "Olentzaro" taldeak 10 abeslari'tik gorakoak.

Umetxoak, "Jayotza,,'ri bakarik dagokiyon abestiyak kantatuko dituzte. "Olantzaro" aldrak naiz "Jotzoyari", naiz "Olentzaro,,'ri dagozkiyonak. Batzuk goietik eta besteak iunabarean kalez-kale abestutzen ibili beara dute.

"Jayotza" aldrakoak Gabon iunabareko 6'tan "Euzko-Antzoki"-ra joan bearko dute epaikari edo juradoan aurean abestutzera.

"Olentzaro" aldrak Eguari egunean "Euzko-Antzokian" adieraziko dan orduan. Aldra edo grupoen izenak "Euzkaltzaleen" batzordeari il onen 22'rako adierazi bearko diote.

Sari edo premiyoak onela banaduko dira:

Umetxoei: Lenagoai, 15 Lko.; bigarenai, 10 Lko.; irugarenai eta laugarenai boana laurleko.

"Olantzaro" taldeai: lenengoai 25 Lko. eta bigarenai 15 Lko.

Beaz Erenderi'ko gastetxo ta gasteak sariyak irabazi nai be dituzute badakizute zer egin.

Euzkaltzaleak.

ZIRIKA

"STRAPERLUA"

¿Zer dan ori? Españarak darabilen iskanbila; batek ogei arapau dauzala; bestiak berogetamar gura-ixan dauzala. Egunean eskandalu bat. Eta biartian, euzko-abertzaliak au ta bestia dirala esan daroe. Buru-belari loikerijetan barna dabiltzanok, lotsa gitxi dauke. Gil Robles'ek txaluak joten eutsozan Lerroux'i, baña azkenean lakirijua gertau dautso.

Salazar Alonso ta antzekuak zer diran ba-dakigu. Gustijak toki batetik k-k egin daroe.

卐 卐 卐

"¿Lerroux se absuelve de todo culpa?" Bai orixe esan dabe, baña aurerantzean eztau bururik jasoko. Ederak emon dautsez, batez-be eregetarok! Lengo egubenean, geure aldunen kontra jagi ziranian, txaluak joten eutsezan, baña orain jo biar leuskijez, orain!

"Ale" jaunak zer egin daun ez ei-daki. Eradikal gaxuai buruba ebagi dautse. Orain pozik dagoz Ceda'kuak. Eurek baño ez ei-dira buru-ixango.

Gil Robles'ek zer egingo daun ba-dakigu. Abertzaliok preparau gadixan.

卐 卐 卐

¡Or dua beste gobernu bat, be, ankaz gora! Erkal edo erepublika etori zanetik amaikatxu ministru ixan dira. Nor auturik be eztabe lasterixango. Egunean ogei ministru aldatuten dabez-ta.

¿Zer etoriko dan? Eztakigu, ba. Kortiak ezereztuko ete-dabez? Bayetzean gagoz .Aldunok artega dabiltz ,alkar-ondo artu eziñik, baña Alcala Zamora'ran erabagiren bat bana emongo dautse. ¡Buaz ordunean kaiku-tzarok!

"Maura, sí; Maura, no." Ene bala, bariro asi yakuz olako oyubatzaz. Antziñatsu be orelako astrapadakaz ibili ziran españarak, orain, be, bardin-bardin. Ezkeratarak bayetz, edo; eskumarak ezetz. ¿Zer egin? Abixen orek "sí, no" gorijak aterazoten dauz.

Lekaidetxiak ere ei-ebazan jaun orek! Bai zera! Bera ixan ezpa'litzan amaika geyago ereko ziran.

卐 卐

¿Kontsultak? Asi dira. Itaundu bati, itaundu bestiari, azkenian ezer ezegiteko. Orexek dira españaren bidiak. Bilbao'ko astokiluen batzubei, be, dei-egin dautse ez, onu-eske. Eta orain lau urte esan ebena, bariro, be, esango dautse. "Au egixu, bestia ez egixu egin."

Eskumarak euren aldera joko dabe; ezkeratarak eurekana. Beti lelo bardiña.

卐 卐 卐

"La Constancia" atsuari, be, dei-egin dautse. ¿Zetarako? ¡Ezkontzeko ez! Zara da senargai bat aurkitzeko. Atso batek gauza onak baño eztaikezala esan eta onu-eske etori yakoz. Baña On Juan asaratu da. Zelozo ta amoroso ei-dabil jaun ori.

Agin barijak egingo ei-ebazan "La Constancia" orek gobernuban emongo eutsezan lauflekuakaz, baña agin-barik geratuko ei-da. Aginka egiteko biar-biareko euzan, ba, agin barijak!

卐 卐 卐

"España roja" edo "rota" zegaz geratuko dira eregetarak? Eztakigu. Roja'gaz geratzen ba-dira, "rota" ixango da. "Roja" ori gura debak, eztabe ikusi nai aberijak-eta. Calvo Sotelo memeluak, eztaki zer iñuan, be. "Roja" nai dabenak munlu osua aberitzat dauke. "La Constancia"k Goikua'ri otoi-egin ondoren erabagi dausku: "roja"gaz geratu gadixan. Bai ezpanetarako laoiz gorija biar dau-ta...

"POR QUE SOMOS SEPARATISTAS"

Bilbao'ko "El Pueblo Vasco" izparingijan idazten dabenan artian, azkarena ez, baña gatz-bakuena "Candido Perez" dozu. Ugutzaukeran zer iazo zaneztakigu, baña Azaña'ko gatzak ezeguan. Bare-eragin gura-ixaten dau, baña negar-eragiten dautse irakurle gustijai. ¡Edo lo-eragin!

(¡Cuidado, Gomez!) Itz orek ipiñi dauz lau libra gatzek baño atsegintasun geyago eukiko dabelakuan. ¡Gixaxua! Calvo Sotelo'ri erakutsi eutsen artikuku ori eta esan eban: oalko idazliak ba'legoz Madrid'en, neu be separatista amoratuba ixango nintzake.

Burni-bideren bat egingo ei-dauskube. "El Pueblo Vasco"k-eta orixe dirauskube .Eta esan ordukoxe Lucia ta bere kidekuak ankaz-gora jausi dira. Areta-Trespaderne ori eginda ikusi gura dabenak asi bediz otoika. ¿Zetarako? Otoi-egin begijanei edo mila urteko bixitzea Goikua'ri eskatuz. Orixe egiteko asmua daukogu: Ene Jaun on eta erukijora, Areta-Trespaderne burni-bidia amaitu-artian bixitza onetan zaindu naixu."

Jaungoikua'k zer erantzungo dauskun eztakigu ,baña alatzik eztaikela egin esango dau. Mila urtetan bixirik eukiko gauz? Lucia'k erantzuna.

卐 卐 卐

Gaitan de Ayala pozik dago. Irazizkiñera, be, juan yaku eta abots eztitsubaz esan dausku, neskatila aberatsentzat proportziño ontxuba bera dala. "Niño guapo" bera bet; besterik ez. Ezkonduko danian "viaje de bodas "auxe egingo ei-dau. Areta - Trespaderne bitartian ogei juan-etori. Eta burni-bide ori egin-artian eztala ezkonduko entzun dogu. ¡Ai zoritxareko emaztegaya, etzara beinguan ezkonduko!

¡Neska-zar ikusiko zaut!

Orma ta mairako egutegija

Bilbao'ko Euzko-Gastedijak argitaduriko egutegija eskuratu dogu. Egija esan da, gaur-arte ikusi dogunik txukunena, apañena, eta merkiena dogu berau. Sei erialian salgai ipiñi dauskube, eta ondo begituta bere aurian daben geure irakasliaren argazkijak balijo dau saneuri ori.

Onez ganera beste amabi argazki (ileko bat) dauz bata baño bestia txukunaguak. Argazki oneik erosten baguaz saloki batera laurleko bat ondo ordaindu biarko genduke argazki bakotxeko.

Egutegi-aureko Sabin'en argazkijan ganera beste argazki oneik dauz.

Urtarila'ri juakanez, Sabin'en txikitako argazkija agiri dau bere amaren besuetan.

Otsala'kuan: Bilbao'ko Euzko-Gastedija zabaldu zan aldiko, ezpatadantzari-talde moroskoterija.

Epaila'kuan: Sabin eta bere lagunak mendirik-mendi, eiztari basurdetan.

Jorala'kuan: Libe antzerkiko, Gamiz'ko Batzara Andima gudalburutzat artzen.

Orila'kuan: Bilbao'ko Andoni Deunaren txadona.

Bagila'kuan: Begoña'ko "Larazabal" basetxia.

Garila'kuan: Bilbao'ko ibayan. Gure ikuriña olontzi baten.

Dagonila'kuan: Sabin irakaslia "Larinaga'ko espetxian, burdiñasko ateari oratuta.

Irala'kuan: Gernika'ko Bizkai batzar etxia.

Azila'kuan: Sukarieta'ko ildegi gomutagarija.

Lotazila'kuan: "Aizteak" antzerkixun ikuskixuna.

Bata beste argazki txikitxu batzuk agertuten dauz era bardingetakuak, danak dira, egutegitik ebagiteko erez-erezak. Argazki atzeko aldian agertuten dau, argazki bakotxaren azalpena, bata Sabin'en oldozkixun eta asmuak.

Egutegi au elebitz edo (bilingüe) idatzita dago, ose-osuan, eta ikusten doguñez erdeldun abertzale askorentzat euzkera ikasteko bide egoki-egokija.

Euzkaldunak bere asko dira ilaren ixenak euzkera garbijan eztakijenak, egutegi au egokija dabe, ilaren eta astian ixenak euzkera txukunian ikasteko.

Bilbao'ko Euzko-Gastedijak txaluak meresi dauz iñoizko egutegirik ederena argitaldu daben-ezkero.

¡Zein txalorik eta geure eskerik onenak berari eskiñiteko...? Egutegi au abertzale bakotxak eskuratutia.

Egutegi au eskuratubaz bata geure abertjari lagunduten dautsagu, eta abertjari lagundu biar-yakanian, eztaigun aurkitu ezetariko eragozpenik.

¡Abertzale adizkidea, Egutegi au erosi ta zabaldu egixu! Abertjari ta euzkerari laguntasun andija eskiñiko dautsazu.

Ogoñope.

URKIOLA

EZKONTZA.—Azila'n 30 Ander Deuna'ren egunian ezkondu zan gure adizkide mate-mate dogun Enbeta'tar Balendin, Ealo'tar Kalare'gaz, euzkaldun zintzo eta Jauna'ren jaraitzale zintzoetarikuak; euren ata-ama bitxiak; Enbeita'tar Sabin eta Goriño'tar Miren-Andone. Eztegura etori ziranak; Asarlosa'tar Bakarne, Enbeita'tar Miren eta Enbeita'tar Edurne. Ezkontza ori egin zan ondoren euren jana edo baskarija Landaxola'ren ostatuan egin eben. Zorijonak ba, eta ufte askotako osasuna eta pakia opa dizubet.

EGURALDIJA.—Orain arte oso eguraldiederak egin dituz, baña eurentzako arpegi azaria ipiñi dabela deritxet; gaur goizian Urkiola inguruba ederto zuritu dozku; orain zazoyan gara eta ezta zetan azaratu.

JUAN ETORI. — Egun bat edo bi igaroten etorita emen gure artian aurkitu da guk bijotzez mate dogun Enbeita'tar Kepa.

Bilbo'ra juan zan egun batzuk an igaroteko ustez Pedrin deritxon mutil gaste azkara.

Anbotope.

Gayak

ZABALBIDE'N

Bizkai'ko Batzoki-txapelketeak geruago ta pelota-zale geyago Zabalbide'ratuten dabezala esan leike. Igazi dan igandian be Zabalbide'ko pelota-lekuba ikustekua eguan. Jokaldijak be, gero, aurten, notiñak notin eruatekuak lakuak egiten dira.

Ona emen igazi dan igandekuak.

OROZKO-MATIKO.—Orozko'k Itza ta Landeta aurkeztu dauz; Matiko'k, Grela ta Galastegi.

Orozkoarak gastetxubak dira. Biarba gastiegijak matikoaren aurka burukeari sendo eusteko. Eta ori dala-ta-edo, matiokoarak asko nekatu barik irabazi eutsen. 9-22 jokua amatu eben.

ZEBERIO-GALDAKANO.— Bigaren ikusi zan buruka au, lenengua baño gogortxubagua ixan zan.

Madariaga ta Artzuaga zeberiotar pelotarijak, garale urtetako ustez lekuratu ziran, ba. Baña Iraurgi ta Ereño be asmo bardiñak lekuratu ebazala ikusi zan, areik be peloteari gogotsu erasoten eutsoen-eta.

Zeberiotarak gogortxu asi ziran, eta aurretik jari. Saspi ekiñalditan, 6 ta 1 jari ziran, eta jokua zeberiotaren aldeko amatuko zala uste zan.

Baña galdakanotarak zuzpertuten asi ziran, burukeari eusten. areynai bularra erakusten. Eta atzeko ta aureko, bijak ondo alkar artubaz, beneratziña bardindutia loftu eben. Amaikana be bardindu ziran, baña amalau ta amabosna be. Azkenengo bardiñaldija, baña, amabosnakua ixan zan, eta zeberioaren azkenengo eskuraldija, 15-22 galdakanoarak jokua irabazi eben-eta. Burukaldi au polita be polita ixan zan.

ERMUA-BALMASEDA.— Ona emen irugaren burukaldija.

Jokaldi onetako burukarijak, be, aurerauko bijen antzian, bigaren maiakuak doguz Ermuarak Salaberia ta Amezti dira. Balmaseda'kuak, Abad anayak. Oneik jokolari gogorak dira, ta Zabalbide'n ezagunak

Lenengo eskuraldija ermuarak irabazi eben. Bigarena galdu, ta baña bardinduta geratu.

Jaraiko bost eskuraldijak be Balmasedarenak ixan ziran. Abad-anayak alkar ondo ertzen dabe, ta aurera duaz. Eta aurera juanaz 3-10 jokua imiñi dabe.

Ermuarak be, baña, jokatu-egiten dabe, ta [illegible] jaraiko eskuraldi irabazijaz, 9-11 jokua imiñi dabe. Amezti atzelarijak, baña, eskuraldi [illegible], ta eskereko ormeari deutsela imunten eutsoezan peloteari nekez ormaratuten ebazan. Nekezka be, baña, eldu egiten ebazan, eta Abad anayai esturaldi garatzak jasanazo. 16-21 dakusguz, eta 16-22 amatuko danaren antza artu dautsagu. Baña ez; ermuarak ondiño guda-zelayan dirauc, ta euren gudari-adoria galdu barik iraun be. Eta azkenaldeko indaraldi estu baten bidez, iru jaraiko eskuraldi irabazi dabez, eta 9-21 jokua imiñi. ¡Ango esturia!

Balmasedarak, baña, jokolari obiak, dira, jokolari osuaguak Eta zuzentza-bidez garaitzea eurai yaoke. Garaitzeaz burestunduteko, baña, eskuraldi bat biar eben. Eta ori, ekitaldi luzia ta gogorren ondoren, Abad aurelarijak ¡zizt-zazt! orma bijetara jaurti eban peloteaz irabazi eban. ¡A lako txalotsik!

ONDARETA-OTXANDIANO. — Lenengo malakuak doguz oneik.

Ondareta'k Breude ta Aldai bidaldu dabez: Otxandiano'k, ostera, Egia ta Otalora.

Jokaldi au uste ixan zan baño obatxubagua ixan zan. Lauretan geyen galendu ziranak, baña, Ondareta'ko Breude ta Otxandijo'ko Otalora ixan ziran. Oneik bijok buztari baten azpijan dirala, ta besakarik barik burdijari eusten dakijanak ixan, burdikada aundijari eraingo leuskijue, ta troka-zuotik atara be bai aurki.

Ondaretar atzelarija, baña, otxandijoara baxen gogora etzan ixan. Eta ori zala-ta, Breude aurelari trebiaren alegiñak gora-bera, jokua 18-22'ra galdu eben. Biritan bakarik bardindu ziran: 4 ta 7'an.

Jokaldi bitartian, baña, jokera berezirik asko egin ebezan Gustijetan artezijena Breude'nen jokera bataz ondaretarak irabazi eben 13'garen eskuraldija ixan zan.

Otalora'k atzetik burni-gane-ziar aiztuaz ebagitia lez ebagita irabazi ebazan 5 eta 6 eskuraldijak be, ikuskarijak ixan ziran. Egia'k asikeratik asita jokera berezi bat baño geyago erakutsi ebazan.

Aurtengo txapelketa onetan, antza dagonez, ondiño gauza aundijak ikusi biar doguz. ¡Oneik dituk mutilak...!

JON DEUNEN TXADONAN

Igazi dan igandian goiz ta arastei, Bilbao'ko Jon Deunen txadona gonburu ikusten zan.

Goxeko jaupaetan Jaunartze ederak egin ziran. Aratsaldian, bariz, eleizkixun ospetsubak.

Lauretakua euzkerazko agurtza, txonitza ta euzkerazko abesti ederakaz egin zan, eta gure Jauna agirijan zala.

Geure ele utsezko eleizkixun begiko au, Jon Deunen ertxadon gustija euzkeldun kistarez gonburu zala egin zan.

Andoni Deuna'ren Kurril nekalditar txonizlari agurgarijak, beren uñenaren azkenengo itzaldia. Sorkunde orbanbakuaren aurka beregarak ogei ebazan, eta bangiaren oneraspena agiri txadonaratu ixan ziranak, [illegible] egin.

Amatuteko, Sorkunde [illegible] irudijaz eleiz-barubari bira yakan, ertxadon-jaupari gu[illegible] yakazala egin be. Bitartian, [illegible] uneskiñaz lagunduta, Sorkunde [illegible] giatzazko euzkel-abesti sa[illegible] tu ziran.

Eta azkenian, Bizkai'ko [illegible] dan Ama Neskutza'ri ag[illegible] "¡Agur Josu'ren ama...!" [illegible]

¡Eleizkixun edera bein! [illegible] kixun ederak gertetan d[illegible] si'tar Augustin Jon Deuna[illegible] ako txaunburu jaun agurgar[illegible] asko dautsagu, guk, euzkel[illegible]

Augustin jauna beti ikusi[illegible] re lekuban: Ama Neskutza[illegible] me-alabarik geyen irabazi[illegible] zabaltzen. Zorijonak. Aur[illegible] rai.

Uribitarte.

Euzkeraren M[illegible]

Norbere Ab[illegible] tza zala dala-[illegible] ezduana, ez da [illegible]

Ratxid[illegible]

Gaurko EUZKADI'n Zal[illegible] maitia ikaratuta datorkigu[illegible] tzak dirala eta ez-dirala.

Euzkerak nere ustez er[illegible] rik, "leyua" esan beafean [illegible] esan-arén, ez. Euzkerean [illegible] "[illegible]akin, eta ez egitia", jakin[illegible] izatia Euzkeraz egiten; bai[illegible] bai gure Batzokietan, eta a[illegible] garíagua, bere gurago, e[illegible] me alabatzakin; auxe da [illegible] otsava eta benetako "lotsa" [illegible] keraren malko mardul ta g[illegible]

Euzkera "erarik" eta "[illegible] go. Euzkera maite edo ez [illegible] maite dabenak ezdu baño [illegible] ta dala, maite ez'dabenak [illegible]

Orain dala 20 edo 25 [illegible] "Zar-Zale", "Batzokiak" izen[illegible] naizun ezzakitenak eruz i[illegible] —ela da, era [illegible] ¡gaur...! gaur be baña Abertzaleen [illegible] bolarik dotzen zalo, [illegible] gurian. ¿zergatik? Guk b[illegible] izenak jartzen dizku[illegible] eta karta[illegible] ondo [illegible] "círculo'eri" baña [illegible]

Beñere eznau bildurtu [illegible] raz "kulpia" "estazíñua" [illegible] abar entzutia. Ofaxago d[illegible] tazíñora nijua frena afaga[illegible] ten duana "Geltokira nijua [illegible] tzera" esaten jartzea, ez, "[illegible] estación a coger el tren" [illegible]

Au erderaz egin dizun a[illegible] ñiko dezu Euzkerara!

Geienaz jota beforei ta a[illegible] tzaldietan Euzkeraz, e[illegible] tuak. [illegible] tzi.

Safi ikusi ditut asko e[illegible] bartaren eri Euzkereari [illegible] baña geienian "erderaz", e[illegible] Euzkeraz egiten da. ¡ai [illegible] alako Euzker'a Zuzenaraza'n [illegible] naizta "ventania" ta "cabi[illegible] itz batzuk gora bera "no e[illegible] ño obia izango litzake...!

Euzkere aragian "bi" [illegible] emoten die. "No entiendo" [illegible] auxe da ":No entiendo" [illegible] Euzkeduncian, eta guraso [illegible] ekin eta... ¡abertzalekin..! [illegible] do" auxe benetan lotsa[illegible] izendun aurtxoak, beren [illegible] keldunak eta.... "No entiend[illegible]

¿Nor da emen Euzkeraren [illegible] Gurasoa, epela dalako, [illegible] maite ezdualako, eta aber[illegible] zer dan ez dakialako.

Bildur izan adi bada "Zar[illegible] kide ona bi itz auekin "No [illegible] beste guzia egingo diagu. [illegible] pi aldian ere "erdera" sa[illegible] gerena nik uste euzkotar e[illegible] ori dezue bada etsava.

Afantzaliak itxasoan ai[illegible] sarietan jaso ondoren atze[illegible] botatzen ikusi dixkiat ¡bai[illegible] Afai aundia naikoa dagoela [illegible] ere berdin, ik egin ondo E[illegible] te askok ere bai, eria ja[illegible] eta danok egiten degunian, [illegible] bitu, txukundu eta "zala" [illegible] ña ez bildur izan itz batzuk[illegible] ri" baño ¡No entiendo..!

Euzkeraren malkoak zeh[illegible]

Beti lez "Zar-Zale".

MAÑARIA

Arana eta Goiri'tar Sabin[illegible] kasle matagarijaren gogo[illegible] ko ertxadonan, datoran ig[illegible] en 15'gn., beste urtietan le[illegible] ospatuko da.

ERBIJA UGERI.—Leng[illegible] be eiztarijak, erbi-piluak [illegible] zan. Aurten ,erbije ugeri d[illegible] Tamala da baña, orenbest[illegible] poko eiztarijak ortik-ziar [illegible] tarok erbi-okela samura [illegible] egon-et[illegible]